

Kristau Eskolak eta AICEk guri arrazoiak ematen tematzen dira Maiatzaren 15 eta 16an, berriro kalera

Kristau Eskolak, AICEk eta Gizarte Ekimeneko ikastetxeak ordezkaten dituzten gainontzeko patronalek ez dute aintzat hartu sektoreko langileok martxoaren 20ko greba deialdiari eman genion erantzun irmoa.

Ez digute negoziatzera deitzen; ikastetxe barruan nahiz kanpoan daramaten desinformazio kanpainarekin jarraitzea lehenesten dute, bere kontra bihurtu daitekeela konturatu gabe.

- Eskaera sindikalak -dirudienez- ez dira onargarriak eta ikastetxeen bideragarritasuna -ezaguna egiten zaizue?- kolokan jartzen dute. Argumentazioaren funts eza agerian gelditzen da sindikatuok eskatutako bost puntuetatik batek baino ez, duela ondorio ekonomiko esanguratsurik (galdutako eroste-ahalmenaren zati bat berreskuratzearena, %14a une honetan). Beste bi puntuak duten eragin ekonomiko oso eskasa da kolektibo txikiei dagokielako. Hezkuntza Laguntzako Espezialistei eta 0-3 zikloko teknikariei astean 5 ordu osagarri onartzeko beharrezko kostua oso urria da (lanaldi osoan, urteko 4.500 € lehena eta 3.800 € bigarrena). Bestaldetik, beste bi puntuak inguruko desadostasunak (batez ere irakasle lanaldiari dagokiona) maila ideologikoan kokatu behar dira, ez ekonomiarekin.
- Negoziatzeko prest jarraitzen dute eta sindikatuok izan gabela mahaitik altxatu ginenak. Egunotan ikusten ari gara irakaskuntza publikoko gatazka konpon bidean egon daitekeela bi aldeek negoziazioaren alde agertutako jarreragatik eta, jakina, edukin errealak mahai gainean jarri direlako. Kezkagarria da gure esparruan greba deialdia desaktibatzeke inolako keinurik egon ez izana. Familiengan eta ikastetxeetako elkarbizitzan grebak izan dezakeen ondorio kaltegarrien gainetik, ezetzari eutsi diote, duela urte eta erdi zuten proposamenari inolako aldaketarik egin gabe. Berriktarekin nahasten dute negoziazioa.
- Konponbidea Hezkuntza Sailaren eskuan dago, itundutako ikastetxeak ez dituelako behar bezala finantzatzen. Puri-purian dugu eskola segregazioaren gaia eta askok zalantzen jartzen dute arlo horretan itundutako irakaskuntzak duen erantzukizuna. Agian garaia izan zitekeen autokritika egiteko eta neurriak hartzeko eta arlo horretan euskal gizartearekin konpromiso argiagoak hartu. Nahiago izan dute bere burua zuritu eta sasiegi eta arduragabeko gezurren bitartez irakaskuntza publikoa eraso dute. Hezkuntza Sailak aurrekontuen bi herenak erabiltzen dituela ikasleriaren erdiari soilik, irakaskuntza publikokoa alegia, arreta egiteko adieraztea izugarria da. Bide horretatik ez gaituzte bidelagun izango

Gurea -ñabardurak gora behera- betiko lan gatazka da: egoeraren ondorioak langileek soilik ordaindu dezaten nahi duen patronal gotortuak bultzatuta. Ezagutzen ditugu eta jakin badakigu bere xedeak lortze aldera dena baliagarri zaiela: Biktimismoa, mehatxuak eta desinformazio interesatua. Mobilizazioa moteldu nahian Hezkuntza Sailak irakaskuntza publikoko negoziazioak bukatutakoan eureaz arduratuko duela diote. **STEILAS**en ustez ez dute inoren erreskatearen zain egon behar, euren baita egoerari aurre egiteko erantzukizuna. Kontratatu, agindu eta kaleratzen gaituztenei gure lan baldintzez ardura daitezten exijitzen diegu.

Adorez eta borrokaren bitartez Hitzarmen berria lortuko dugu. Patronalen jarrerak erantzun irmoa behar du. 15ean eta 16ean agerian utziko dugu gutxietsi egin gaituztela. Datozen 15ean eta 16ean ez gara lanera joango eta kaleetan aurkituko gaituzte.

Ekinaren ekinaz, ezina egina!

www.steilas.eus